

TONALITATE BAKARRA

Irene Nogueira Ureña

Legutio

Labirinto

honen pareta zuri-beltzen kontra
kolpeka
kolpe, kolpe, kolpeka.

Monotoniaren gatibu, preso
ordulariaren menpeko
egutegien morroi.

Bazter bueltan denaren beldur
kobazuloetan ezkutatuta
itzaletan biziz.

Grisa da
tonalitate bakarra
errepresioaren arra
aurrera doana
motel, tinko, gogotsu
esku baten labana
mihi-poltsa bestean.

Saiatu egin naiz
atea bilatzen maiz
irrien soinua oroitzen
musuen kilima dastatzen
txorien txioa abesten
ene arima aurkitzen.

Hotza
habia sortzen
hasi da
nire barnean.
Garuna izoztu
eta bere etxea eraiki du
bertan.

Giharrak gogortu ez ezik
erraiak atera dizkirate
malko beltzen artean.

Jadanik zombien antzera
ez aurrera
ez atzera
norabiderik gabe
buelbaka.

Bat-batean dut
zerbait ikusi
ez da batere itsusi.
Haren ondoan makurtu
eta leunki

nire bularraren kontra
estutu.

Txoria dugu hemen
enara dela gogoratu dut trakets.
Lumak gorri
bihotza hutsik
hanka tartean du
paper bat ezkutu:
“Askatasuna, zer da?”